

### **BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA  
NEREA YEREGUI BALDA  
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA  
MARIA CRISTINA VAL SARDON  
IGOR OTERMIN EGUIA  
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI  
ANDER PRADOS OTAMENDI

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

### **IDAZKARIA**

Joanes Aleman Olo

Betelun, Udaletxeko udal  
bilkuren gelan, 2023ko  
abuztuaren 30ean  
arratsaldeko zazpi eta erdiak  
direnean, ondoan aipatzen  
diren zinegotziak elkartu dira,  
Lorenzo Zubillaga  
Goicoechea alkatea buru dela  
eta egintzaren fede ematen  
duen Joanes Aleman Olo  
idazkariak lagundurik.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

## **1. 2023-08-30EKO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA**

Deialdiarekin batera banatu den 2023-07-21eko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

## **2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:**

### **1.Kantauriko Ur Konfederazioa**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko uztailaren 13an, 56/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Kantauriko Ur Konfederazioari Beteluko Udaleko 2. Poligonoko 576. Lursailean Araxes errekan informazio sistema automatikorako estazioa kokatzeko lizentzia ematea.

### **2.San Pedro kaleko pareta**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko uztailaren 21ean, 57/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: San Pedro kalean, Beteluko 1. Poligonoko 29. Lursailean, dagoen paretaren egoera txarra dela eta, Iruñeko artzapezpikuari paretaren konponketa egitea errekeritzea.

### **3. Enrique Martinez Cabanelas**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abuztuaren 1ean, 58/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Enrique Martinez Cabanelasek Beteluko 2. Poligonoko 5. Lursailean dagoen hustubidearen egoera konpontzeko egindako eskaera ezestea, eskumena Udalarena ez dela iritzita.

### **4. Juan J. Oreja Campos**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abuztuaren 9an, 59/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Juan J. Oreja Camposi hirigintza lizentzia ematea Beteluko 1. Poligonoko 42. Lursailean dagoen garajeko hutsartea handitu eta atea jartzeko.

### **5. Kalifikazio epaimahaia**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abuztuaren 9an, 60/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Plantilla organikoan 2 zenbakia duen administrari laguntzaile postu hutsa merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren baitan kalifikazio epaimahaiaren epaimahaiburu eta bere ordezkoren postuan aldaketa egitea.

### **6. Ordainketa agindua**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abuztuaren 17an, 61/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2023ko uztailaren 21ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

### **7. Conchi Ponce Burgo**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abuztuaren 18an, 62/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Hirigintza lizentzia ematea Beteluko 2. Poligonoko 81. Partzelan dagoen Errekaldea etxearen estalkia berreraikitzeke.

## **3. 2/2023 AURREKONTU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA**

Udalbatzari ondorengo 2/2023 aurrekontu aldaketaren espedientearen hasierako onarpena proposatu zaio:

1. Ezohiko kreditua 1 4520 6190001 "Araxestik harriak atara": 20.000,00 euro.

“Gastu orokorretarako gerakina” 1 87000 sailarekin finantzatua: 20.000,00 euro

2. Ezohiko kreditua 1 9200 62600 “ekipo elektronikoak”: 3.500,00 euro.

“Gastu orokorretarako gerakina” 1 87000 sailarekin finantzatua: 3.500,00 euro

Aldaketa Nafarroako Toki Ogasunaren 2/1995 Foru Legearen 212 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera egin da.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 212. eta hurrengo artikuluen arabera eta Beteluko Udaleko 2023ko aurrekontuaren exekuzio oinarrien 9. Oinarrien arabera, espediente hau jendaurrean izanen da 15 egun naturalez udal idazkaritzan, nahi duenak aztertu ahal izateko eta hala nahi izanez gero, egoki ikusten dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, honela onarturik dagoen espediente hau behin betikotzat joko da.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren guztiek aho batez onartu egin dute.

#### **4. ANIMSAKO ORDEZKARIAREN IZENDAPENA**

Ikusita Asociación Navarra de Informática Municipal SAK batzorde orokorrean Beteluko Udalaren ordezkaria izendatzeko eskatu duela, ondoko onartu da:

1.- Nerea Yeregui Balda izendatzea ANIMSAk eginen dituen batzorde orokorraren batzarretan Beteluko Udalaren ordezkari izateko.

2.- Parte hartu ezinen balu, udalbatzako beste kide bati eskuordetza egiteko ahalmena ematen zaio, kapital-sozietateei buruzko Legearen Testu Bateginaren 184 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

#### **5. JABARI PUBLIKOKO ONDASUNAREN KALIFIKAZIO JURIDIKOA ALDATZEKO ETA LURSAIL SOBERAKIN IZENDATZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA**

Mahai gainean utzi da gai zerrendaren puntu hau gaia gehiago aztertzeke asmoz.

#### **6. FAKTURAK**

DIMARPE S.L.	F. FV-232203	138,35
NAFARKOOP	Eguzki instalazio fotovoltaikoak jartzeko ikerketa	1.361,25
IRURTZUNGO ZONALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO	ITURRASKARRI	1.500

MANKOMUNITATEA		
OFICO	F. 233268 abuztuko lan aholkularitza	96,57
CODISNA	f. 23427	193,84
ASCENSORES ARGAS SL	F. 009168	242
TAXILON	Taxi jaia Leitza	115,45
MIGUEL RAMON OLANO ZABALETA	F. 46-2023	605,00
MIGUEL RAMON OLANO ZABALETA	F. 47-2023	356,28
MIGUEL RAMON OLANO ZABALETA	F. 48-2023	417,06
URZUBI	F. A 868	147,20
GREENICE	VEN/2023/954417	259,93
ILUMINASHOP	Plafón LED circular, cuadrado...	348,89
BRICO DEPOT	F. 2023164902/00029827	378,30
BARTOLO SL	F. 5 Presako harriak kendu	3.388,00
GOIENER	Uztaileko eskolako energia elektrikoa	388,88
GOIENER	Uztaileko udaletxeko energia elektrikoa	362,10
TAXILON	2023ko uztaileko bidaiak	113,20
RODRIGUEZ EZPELETA	Kalderola presako memoria baloratua	340,74
IBERDROLA CLIENTES SAU	ARGIZTAPEN PUBLIKOA 2023-06-30/203-07-31	518,65
ANIMSA	F. SCA 367	1.120,14
IBERDROLA	Urberoako uztaileko energia elektrikoa	8,97
IBERDROLA	UZTAILEKO ARGIZTAPEN ELEKTRIKOA	243,39
VENUS M, CAMPOS WALSH	Uztaileko garbiketa	2278,83
VENUS M. CAMPOS WALSH	Uztaileko zakarrontziak	154,28
HOSTAL BETELU	Presako garbiketarik merendua	105
IRURTZUN ESKUALDEKO GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA	2023ko aurrekontuaren bigarren %50	5.286
WIKAI	F. 1/13425	85,72
REKALDE ZURGINDEGIA	F. 678-23	101,64
REKALDE ZURGINDEGIA	F. 677-23	941,69
REKALDE ZURGINDEGIA	F. 682-23	67,76
REKALDE ZURGINDEGIA	F. 681-23	1.413,74
IRUÑA MANTENIMIENTOS	F. 233224 Mantenimientos caldera	1.359,23
OFICO	Uztaileko lan aholkularitza	180,77
MIGUEL RAMON OLANO ZABALETA	F. 43-2023	562,05
ANGELINES CARRILLO RUIZ	F. 11 Uztaileko uraren kontrola	90,00
<b>SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA</b>		
SEIKIDE KOOP. E. ASESORIA AHOLKULARITZA	PAGA EXTRAK, FINIKITOKAK, ALTAK ETA NOMINAK F. S0001353	312,18
<b>OSOTARA</b>		<b>25.458,19€</b>

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

---

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 81.2 artikuluari jarraiki, Lehendakariak, premiazkotasunez, gai zerrendan ondorengo puntuen inguruko akordioak sartzeko eskatu du: "Araitz eta Beteluko kolaborazio hitzarmena".

Premiazkotasunaren zioak ondorengoak dira: Araizko Udalak bailara barruko mugikortasuna bermatzen duen taxi zerbitzuaren likidazioa bidali du eta horren aurrean lehenbailehen erantzun bat eman beharra dago.

Lehendakariak gai ordenean sartzeko akordioa berrestera ekarri eta udalbatzan diren kide guztien aldeko bozkarekin onartu da. Aldi berean, aldeko bozka hori udalbatzako legezko udalkideen gehiengo osoa da.

## **7. ARAITZ ETA BETELUKO KOLABORAZIO ESKAINTZA**

Beteluko Udaleko alkateak ondorengo proposamena ekarri du bozkatzera:

"2023ko abuztuaren 18an sarrera eman zitzaion bailara barruko mugikortasuna bermatzen duen taxi zerbitzuaren gainean Araizko Udaletik bidalitako likidazioari.

Harridura sortu digu likidazio honek, ez baitago Udalean honen gaineko inongo akordiorik.

Akordiorik ezean, mugikortasunaz gain Araitz eta Beteluko biztanleei eragiten dien beste zerbitzu batzuen gastu banaketaz (Eskola, musika eskola...) ere hitz egin eta hala bada, akordioak lortzea dela egokiena uste dugu.

Horrela bada, zerbitzu guztiei buruzko akordio orokorra egitea proposatzen diogu Araizko udalari"

Lehendakariak proposamena bozkatzera ekarri eta udal bilkuran diren guztien adostasunarekin onartu da.

## **8. GALDERAK ETA ESKAERAK**

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak eta laurden direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.